

ortzadar


larunbata, 2015eko abenduaren 5a. 427. zenbakia

deia.com/ortzadar

euskal kulturaren kolore guztiak

LABAYRU

Bere ibilbide
oparoari aitortza
eginez, omenaldi
xumea eskaini nahi
dio Ortzadarrek
Labayruri



ADOLFO AREJITA ETA ANDER MANTEROLA

LABAYRU FUNDAZIOAREN ZUZENDARI ETA ZUZENDARI OHIA

“Lan iraunkor baterako beharrezkoa da erakunde batean elkartzea”

Ander Manterolak eta Adolfo Arejitak ondo baino hobeto ezagutzen dituzte Labayru Fundazioaren zirrikituak. Orain arte egindako ibilbideaz harro hitz egiten dute. Gainera, egunero erronka latzei aurre egin behar dieten arren, baikortasunez ikusten dute geroa

 DABI PIEDRA

 Arejita eta Manterola, Labayru Fundazioaren oraina eta iragana. JOSE MARI MARTINEZ

Ander Manterola (Zeanuri, 1934) Labayru Fundazioaren arima da, erakundearen sortzailea eta zuzendari ohia. Adolfo Arejita (Bilbo, 1953), aldiz, gaur eguneko zuzendaria da. Euskal Filologian doktore eta Deustuko Unibertsitatean irakasle da Arejita, baita euskaltzain oso ere. Manterola Udako Euskal Ikastaroen eta Euskal Bibliotekaren bultzatzaile izan zen 1970ean, Labayru Ikastegiaren ernamuina izan ziren ekimenak. Euskalgintzan ez ezik, etnografian ere ibilbide oparoa egin du eta *Euskal Herriko Atlas Etnografikoaren* arduradun nagusia da. Euskaltzaletasuna txikitan bizi izandako girotik datorkiola dio Manterolak.

Nondik datorkizu euskararekiko grina?

ANDER MANTEROLA: Batez ere, etxetik. Nire aita euskaltzalea eta idazle herrikoia izan zen. Gerra aurrean, *Ekinen* eta *Euzkadin* herriko albisteak euskaraz idazten zituen. Maisu bi izan zituen: Kirikiño eta Lauaxeta. Gainera, osaba bat nuen, abadea, eta hura ere idazlea izan zen. *Ekin* aldizkari ia guztia berak idazten zuen; horregatik, lau edo bost ezizen zeuzkan, berak dena idazten zuela ez emateko.

Gero, herria bera, Zeanuri, oso **>>** euskalduna zen. Ni gerra aurretxoan



LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIAK

elkarrizketa



Kulturak adierazten duena da herri baten nortasuna. Guk testigantza batu besterik ez dugu egiten"

ANDER MANTEROLA

Labayru Fundazioaren zuzendari ohia

Uste duzu, Adolfo, Labayruk jakin duela sasoi berrietara egokitzen?

A.A.: Horretan gabiltza buruz eta gogoz. Baina sasoi berriok aldakorrak eta konplexuak dira. Adi eta zuhur ibili beharra daukagu, aldiari aurre egiteko moduan erantzuteko.

Krisi ekonomikoak ekarriko zizuen buruko minen bat, ezta? Zelan egin diozue aurre horri?

A.A.: Krisiak behartu gaitu gure erakundea goitik behera berreratzera. Baina, politikoki batzuek diotena gorabehera, ez dezagun geure burua engainatu: krisian diraugu. Oza-ozta gabiltza, denari zuhur begiratu, aurrera nekez eginez. Bestetik, gizartean eta herri-agintean askotan euskara eta euskal kulturarako dagoen sentsibilitatea ez da beste mundukoa.

Zein arlotan ekin behar dio gogorren Labayruk orain?

A.A.: Bizirik irautea da lehena. Gorputza osasuntsu dagoenean dabil burua ere ondoen. Hizkuntza zerbitzuen eskaintza landu, hobetu eta ugartzea da behinenetariko. Berariaz, itzulpen arloa, helduen euskara maila goratzea, normalkuntza planak. Bestetik, gure hizkuntzaren eta herri-ondarearen ikerkuntza eta zabalkundea. Euskal gizarte sano batek kultura zimendu mamitsu bat behar du, eta horretan gabiltza, batez ere belaunaldi gazteek gure tradizioaren transmisio sendo bat jaso dezaten. Euskal hizkuntza eta kulturaren alderdiak zehatz ikertu nahi ditugu, gizarterako asmo praktikoa beti aurrean dela.

Labayru sortu zenetik hona, euskara batua asko zabaldu da. Zuek, ordea, Bizkaiko euskara lantzen duzue gehienbat. Zer ekarpen egin diezaioke Mendebaldeko hizkerak batuari?

A.M.: Nik uste dut beren etxeko euskara, beren bizkaiera ondo aztertu dutenek euskara batuaren %90 dakitela. Hiruzpalau gauza behar dituzte osatzeko. Euskalkia da euskararen egoera naturala, Italian ere antzeko zerbaitek gertatzen da. Normatiba beha-

rezkoa da, baina bizi dena ez da bizi hizkerari? Lehenik eta behin, hiztunak. Euskaldunok ez dugu bereizten bizkaitarrak edo zuberotarrak garen. Euskaldunok denok gara euskaldun. Batua beharrezkoa da, eskolarako, legedia egiteko, hartu-emanetarako. Baina euskara batua, Bizkaian, ez da beharrezkoa geure gurasoekin hitz egiteko. Hizkuntzak ohitura bat dira. Zergatik galtzen da euskara? Hitz egiteko ohitura desagertzen delako. Egin behar dena da ohitura berria hartu euskaraz hitz egiteko. Euskaldun berri askok ez dute euskaraz hitz egiten ez daukatelako norekin hitz egin. Eta, bere aldetik, euskaldun zahar asko erdarearen menpe bizi dira.

Bizkaierak zer ematen dion euskara batuari? Lehenik eta behin, hiztunak. Euskaldunok ez dugu bereizten bizkaitarrak edo zuberotarrak garen. Euskaldunok denok gara euskaldun. Batua beharrezkoa da, eskolarako, legedia egiteko, hartu-emanetarako. Baina euskara batua, Bizkaian, ez da beharrezkoa geure gurasoekin hitz egiteko. Hizkuntzak ohitura bat dira. Zergatik galtzen da euskara? Hitz egiteko ohitura desagertzen delako. Egin behar dena da ohitura berria hartu euskaraz hitz egiteko. Euskaldun berri askok ez dute euskaraz hitz egiten ez daukatelako norekin hitz egin. Eta, bere aldetik, euskaldun zahar asko erdarearen menpe bizi dira.

A.A.: Bere ibilbide luzean, Labayruk ezere eman baldin badio garrantzia euskara bizia izan da. Lehen eta gaur. Hiztunen ezpainetan bizirik dirauen erregistroa da oraina eta etorkizuna. Gorpurik ez da berpizten, baina bizi dena bizkortzea da kontua. Gazteen artean askotariko erregistroak daude, baina berezkoa eta naturala den erregistroa da jagon eta indartu gura duguna. Erdarearen eragin sarkorrari iragazkia ipini, irentsi ez gaitzan.

Nolako etorkizuna ikusten diozue euskarari?

A.M.: Euskararen munduan egin behar handiak daude, hasiberriak gara oraindik. Sarritan esaten dudana moduan, euskaldunok Francoren isilaldia jasan behar izan genuen, eta 40 urte galdu ziren. Berpizkundea zeterren eta eten egin zen, bada hori errekupe-ratu egin behar da. Gaur egun, tresneria hobea dago, medio gehiago zabalkunderako. Horretaz baliatuz, euskarak gehiago egin behar du.

Eta Labayruk, Adolfo, zer nolako etorkizuna du?

A.A.: Itxaropenez baterik nago ni. Euskal gizarteari, batez ere sartaldekoari, zerbitzu on eta kalitatezkoa eskaintzen diogu. Lantalde ona eta motibatu daukagu. Gogoa eta etorkizunerako proiektzioa badaukagu. Historia eta ondare aberats baten jabe gara. Zeri ber-

dur, beraz? Zeregina badugu eta gizarte oso bat gure zain. Jo eta aurrera.



rru bakoitzean sakontzea baino. Ikerketa arloan, esaterako, hasieratik ikerlanean ibili gara, baina gero horri buruzko kurtsoak ere ematen hasi ginen. Eta hizkuntza arloan ere testuak egiten hasi ginen. Baina testuak eskatzen dizu ikerketa, esamoldeak batzea, literatura aztertzea. Hori guztia hasieratik dago, baina hazi egin da. Uste dut, oker ez banabil, ia 400 liburu eta aldizkari atera ditugula.

Zuek izan zineten aitzindari, baina harrezkerorrelaunaldi berriak ere sartu dira Labayrun.

Nolakoak dira gaur eguneko beharginak?

A.M.: Prestakuntza sendoagoa daukate orain. Hasi ginenok ikuspegi zabalagoa genuen; oraingo gazteek euren arloari begiratzen diote, baina horretan oso prestatuta daude. Gu, denok denera genbiltzan. Unibertsitateak eragin handia izan du, asko lagundu du. Labayru hasi zenean, euskal unibertsitate-rik ez zegoen, Deustun Zuzenbidea ematen zen, baina Filologia eta Historia bezalakoak ez. Gaztediarekin itxaropentsu nago. Beren lanerako ziurtasun handiagoa behar dute, baina prestakuntza aldetik ondo daude.

Maisu eta bidelagun

Elkarrizketa biribiltzeko, Adolfo Arejitak Ander Manterolari buruz berba batzuk esan ditu. Berba onak, ezbaierik gabe: "Neure bizitzako maisu nagusia eta bidelaguna da Ander, gaztetxotatik gaurdaino. Labayruren moduko kultur erakunde hautu baten sortzaile eta arima, Gurutzi Arregigaz eta inguruko ekipo bategaz elkarlanean. Gidari berdinbakoa da lantalde bikain batentzat".

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK ·

labayru: lorpenak

Labayru, mugarriz-mugarri



Labayru Fundazioaren ardatzak euskal kultura, hizkuntza eta ondarea dira. Horiek ikertzen eta gizarteratzen aritu da 1977tik, sortu zenetik. ‘Dakigunetik ez dakigunera’ lelopean, esparru askotan dabil Labayru: Irakaskuntza, euskara zerbitzuak, hiztegigintza, argitalpenak, etnografia, hizkuntzalaritza eta abar

 DABI PIEDRA

Jaso eta zabaldu

LABAYRU sortu baino lehenagotik datoz euskal gaiak ikertzeko grina bizia eta jakintza hedatzeko asmo sendoa. Hala sortu zuten Ander Manterolak eta beste aitzindari batzuek euskaraz alfabetatzeko ikastaroa, 1970ean. Abadeei zuzendutako kurtsoa zen baina, Udako Ikastaroak izenburupean, berehala hedatu zen bestelako arloetara ere. Sortu berri ziren ikastoletako maisu-maistren artean, esaterako, arrakasta izan zuten ikastaro haiek.

Gerora, euskaraz aparteko beste gai batzuk ere landu izan dituzte ikastaroetan, euskal kulturari lotuak. Gaur egun, Labayruk urte osoan eskaintzen dituen euskalduntze eta alfabetatze programak Udako Ikastaro haien jarraipena dira, baita eskola, erakunde eta enpresetan ematen dituzten askotariko ikastaroak ere.

ATLAS ETNOGRAFIKOA Udako Ikastaroak martxan hasi ziren garai beretsuan, Ander Manterolak Joxemiel Barandiaran ezagutu zuen. Hala, etnografiaren arloan murgildu zen Manterola. 1972an Etniker-Bizkaia taldea sortu zen eta 1976an, Etniker-Euskal Herria. Gaur egun, bost talde dauzka Etnikerrek (Araba, Bizkaia, Nafarroa, Gipuzkoa eta Ipar Euskal Herria) eta denen koordinazioaz arduratzen da Labayru. Ander Manterola da zuzendaria eta Gurutzi Arregi idazkaria.

Ia 60 laguneko lantaldea gidatzea dagokio Labayru Fundazioari, beraz. Talde horren obra nagusia *Euskal Herriko Atlas Etnografikoa* da, euskal ohitura eta tradizioen bil-

duma erraldoia, oraindik amaitu gabea. Manterolak azaldu du zein den *Atlas Etnografikoaren* helburua: “Orain arte Euskal Herrian zer kultura izan den, horixe da Atlasak biltzen duena”. “Gerora gure kultura zer izango den ez dakigu, gu inor baino hobeto konturatzen gara gure herrian aldaketa ikaragarriak gertatzen ari direla”, adierazi du zuzendariak.

Hamarkada luzetako inurri-lan etengabea-ri esker, Atlasaren zazpi liburuki argitaratu dituzte orain arte, bakoitza mila orrialde ingurukoa: *Etxeko elikadura; Umeen jolasak; Heriotzako errituak; Jaiotzatik ezkontzara arteko errituak; Herri-medikuntza; Artzaintza eta abeltzaintza; eta Etxea eta familia*. Zortzigarren alea prestatzen ari dira, nekazaritzari buruzkoa.



 Lerroon gainean, Labayruko lantaldea, Derion



 Labayruko kideak, Joxemiel Barandiaran tartean dela, Zaldudon, 1981. urtean. LABAYRU

LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA · MUSIKA · DISEINUA · PUBLIZITATEA · ARKITEKTURA · INTERNET · KOMIKIA · BIDAIK · ZIENTZIA · DANTZA · IRITZIA · KRITIKA · LITERATURA · ANTZERKIA · ARTEA · ZINEMA

Labayru, euskal kultur arloaren begietan

BERNARDO ATXAGA
Idazlea



“Jende jatorra aurkitu dut beti Labayrun, baina bat nabarmendu nahi nuke: Ander Manterola. Suertea izan da bera ezagutzea”

DORLETA ALBERDI
Euskaltzain urgazlea

“Dakidanetik ez dakidanera emandako urrats hori guztiz aberasgarria izan da niretzat, bai hizkuntzari begira zein neure izaera sendotzeko bidean ere. Asko eskertzen diot Labayruri nigan utzi duen lorratza”

PATXI BAZTARRIKA
Hizkuntza Politikarako sailburuordea



“Bizkaiko euskara indartzeko ahalegin horrek euskara bera indartzen du. Iturri zaharretik ur berria sortzen jakin du Labayruk”

JABIER KALTZAKORTA
Irakaslea eta euskaltzain osoa
“Bigarren etxea da niretzat; Labayruren biblioteka aberatsetik iturri oparo batetik bezala edan dut”

AKAITZE KAMIRUAGA
Labayru Ikastegiako langilea



“Labayrun ikasi nuen geure etxeko euskara baloratzen, geure ondareari balioa ematen”

LEOPOLDO ZUGAZA
Editore eta kultur eragilea



“Labayruren muina osatzen duten pertsonekin orpoz orpo eta gustura lan egin dut. Labayruk izan duen garapena txalogarria da”

GASPAR MARTINEZ
Labayru Ikastegiaren lehen zuzendaria

“Labayruk, 40 urteko ibilbidean, goi mailako ekarpena egin du, Azkuek eta Barandiaranek hasitako lanari zorrotz eta metodikoki segida emanez”

FREDI PAIA
Bertsolari eta etnografoa



“Non bizi naizen ezagutzeko tresna da Labayru, belaraldi askotako informazioa biltzen duen erakunde ezinbestekoa da”

IGONE ETXEBARRIA
Labayru Fundazioaren zuzendariordea

“Labayru beharlekua baino gehiago da niretzat. Bertan ikasi dut lanean ere humanismoa kontuan hartu behar dela: Pertsonak gara eta pertsonentzat lan egiten dugu”

ANDRES URRUTIA
Euskaltzain burua



“Dakigunetik ez dakigunera. Betiko euskalgintzatik euskalgintza berrira. Euskaldun zahar zein berriak protagonista, hartzaile eta zabaltzaile, horra hor Labayruren zeresana eta zeregina. Urte askotarako!”

ASIER ASTIGARRAGA
Labayru Fundazioako langilea

“Labayru niretzat teila gabeko unibertsitatea izan da. Euskararen iturriaren ura, literatura klasikoaren sofistiazioa, ahozko literaturaren iruditza liriko-epikoa eta euskaldunon mundu ikuskera erakutsi dizkit”

GURUTZI ARREGI
Labayruko Etnografia Saileko zuzendaria



“Satisfakzioa da Labayrun lan egitea, familia handi baten modukoa da. Gainera, gustuko gaiak lantzen ditut hemen”

LOREA BILBAO
Bizkaiko Kultura diputatua



“Labayru kumea naiz ni. Perfekzionistak eta gertukoak dira bertako beharginak, etorkizun oparoa aurreikusten diet”